

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Administrazio Xedapenak

## Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

## NEKAZARITZA SAILA

4632

**31/2010 FORU DEKRETUA**, ekainaren 29ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aparteko almazariak erosteko laguntzak emateko oinarriak eta 2010eko ekitaldirako deialdia onartzen dira.

Aparteko almazariak erosteko laguntzak emateko oinarriak eta laguntza horien 2010eko ekitaldirako deialdia onartzea.

Uztailaren 6ko 47/2004 Foru Dekretuaren bidez Arabako Nekazaritza Sektorerako Laguntzen Plana onartu zen 2000-2006 aldirako. Plan horren laguntza ildoen artean aparteko almazariak erosteko laguntzak daude. Foru dekretu hori beste foru dekretu hauen bidez aldatu zen: 65/2004, azaroaren 16koa; 28/2005, apirilaren 5koa; 51/2005, abuztuaren 2koa; 53/2006, abuztuaren 3koa; 63/2006, irailaren 26koa; 29/2007, martxoaren 13koa, eta 41/2007, maiatzaren 2koa.

Martxoaren 24ko 29/2009 Foru Dekretuaren eta urriaren 27ko 71/2009 Foru Dekretuaren bidez aldatutako urriaren 28ko 92/2008 Foru Dekretuaren bidez 47/2004 Foru Dekretua zati batean indargabetu zen. Hala ere, besteak beste, aparteko almazariak erosteko laguntzen arauak indarrean jarraitu zuten.

Laguntzen ildo hori ezarri zenetik igaro den denbora kontuan hartuta, bidezkotzat jotzen da laguntza hori "euskal mendi zaldia" izeneko arraza hobetzeko almazarien erosketara mugatzea.

Lehenago aipatu diren oinarriak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onartutako araudian xedatuta dagoenari egokitu behar zaiola kontuan hartuta, bidezkoa da laguntza horiek arautzeko oinarriak beste dekretu batean ezartzea.

Aginduzko txostenak aztertu dira, horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

## XEDATU DUT:

"Euskal mendi zaldia" arrazako aparteko almazariak erosteko laguntzak emateko oinarri arauak onartzea, foru dekretu honetan ezarritakoari jarraiki.

## XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ahal izateko, eta zehazki, foru dekretu honen 6. artikuluan aipatzen den laguntzen kalkulua egiteko gehieneko aurrekontua ezartzeko.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

2010. urterako laguntza hauen deialdia onartzea xehetasun hauekin:

- Eskabideak aurkezteko epealdia: 20 lanegun, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

- Deialdiari aurre egiteko kreditu erreserba, 7.000,00 euro, 2010ko ekitaldirako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiko gastuen aurre-

## Disposiciones Administrativas

## Decretos Forales del Consejo de Diputados

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

4632

**DECRETO FORAL 31/2010, del Consejo de Diputados de 29 de junio, que aprueba las bases de concesión de ayudas para adquisición de reproductores selectos de ganado equino y su convocatoria para el año 2010.**

Aprobación de las bases de concesión de ayudas para adquisición de reproductores selectos de ganado equino y la convocatoria de estas ayudas para el año 2010.

Por Decreto Foral 47/2004 de 6 de julio, modificado por los Decretos Forales: 65/2004 de 16 de noviembre, 28/2005 de 5 de abril, 51/2005 de 2 de agosto, 53/2006 de 3 de agosto, 63/2006 de 26 de septiembre, 29/2007 de 13 de marzo y 41/2007 de 2 de mayo, se aprobó el Plan de Ayudas al Sector Agrario Alavés para el período 2000-2006, entre cuyas líneas de ayudas se encuentran las destinadas a la adquisición de reproductores selectos de ganado equino.

Por Decreto Foral 92/2008 de 28 de octubre por el que se aprueba el nuevo Plan de Ayudas al Sector Agrario Alavés para el período 2007-2013, modificado por Decretos Forales 29/2009 de 24 de marzo, 71/2009 de 27 de octubre, se deroga parcialmente el Decreto Foral 47/2004, quedando vigente sin embargo la regulación de, entre otras, las ayudas a la adquisición de reproductores selectos de ganado equino.

Considerando que tras el tiempo transcurrido desde el establecimiento de esta línea de ayuda, se considera procedente limitarla a la adquisición de reproductores para mejorar la raza de "Caballo de Montes del País Vasco"

Considerando que hay que adaptar las citadas bases a lo dispuesto en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y Reglamento que desarrolla la citada ley aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio, procede establecer en un nuevo Decreto las bases reguladoras de estas ayudas.

Vistos los informes preceptivos en su virtud a propuesta de la Diputada Foral de Agricultura y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

## DISPONGO

Aprobar las bases reguladoras para la concesión de las ayudas a la adquisición de reproductores de ganado equino de la raza "Caballo de Monte del País Vasco" en los términos establecidos en el presente Decreto Foral.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA

Facultar a la Diputada Foral de Agricultura para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral y en concreto para establecer el presupuesto máximo para el cálculo de las ayudas al que se hace referencia en el artículo 6 de este Decreto Foral.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Aprobar la convocatoria de estas ayudas para el año 2010 con arreglo al siguiente detalle:

- Plazo de presentación de solicitudes: 20 días hábiles a contar desde el día siguiente al de la publicación en el BOTHA. del presente Decreto Foral.

- Reserva de crédito para hacer frente a la citada convocatoria, 7.000,00 euros con cargo a la Partida 40.1.02.43.00.750.00.01 "Mejora

kontuko "Zaldi azienda hobetzea" izeneko 40.1.02.43.00.750.00.01 partidaren kontura eta 10.1.10.105.3068/000 erreferentziarekin.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Bakarra.- Indarrik gabe geratu dira foru dekretu honekin bat ez datozen maila bereko eta beheragoko mailako xedapen guztiak, eta bereziki uztailaren 6ko 47/2004 Foru Dekretuaren 62. artikulua, eta aipatu dekretuan artikulua horri buruzkoak diren eranskinen zatia.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu honek onartu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteizen 2010eko ekainaren 29an.- Diputatu Nagusia, XABIER AGIRRE LOPEZ.- Nekazaritza Saileko foru diputatua, ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ.- Nekazaritza zuzendaria, EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

#### **"Euskal mendi zaldia" arrazako aparteko almazariak erosteko laguntzak emateko oinarri arauak**

##### 1. artikulua.- Helburua:

Dekretu honen helburua "Euskal mendi zaldia" arrazako aparteko almazariak -ugalketarako erabiltzeko eta erregimen estentsiboan edukitzekoak- erosteko laguntzak ezartzea da.

Laguntza hauek Arabako Foru Aldundiaren Aurrekontuen kontura finantzatzeko dira oso-osorik.

##### 2. artikulua.- Definizioak:

Foru dekretu honen ondorioetarako, Nekazaritzako Ustiategiak Berritzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legean eta Nekazaritza eta elikaduraren arloan Estatuaren kontsulta organoak sortzeko eta nekazaritzako profesionalen antolakundeen ordezkagaitasuna zehazteko urriaren 20ko 10/2009 Legean azaltzen diren definizioak aplikatuko dira.

##### 3. artikulua.- Laguntzen bateragarritasuna.

Foru dekretu honetan aurreikusita dauden laguntzak bateraezinez izango dira Administrazio Publikoek helburu berberarekin ezartzen dituzten beste laguntza guztiekin.

##### 4. artikulua.- Onuradunak.

4.1.- Orokorrean, dekretu honetan aurreikusita dauden laguntzen onuradun izan daitezke Arabako Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan inskribatutako pertsona fisiko edo juridikoak, Toki Erakundeak, Partzuergoak, mendilerroetako elkarteak edo erkidegoak, baldin eta ondoko eskakizun hauek betetzen badituzte:

- Zerga egoitza Araban izatea.
- Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordainduta izatea.
- Zerga betebeharrak guztien ordainketak egunean izatea.

d. Ezingo dira dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. artikuluan zehaztutako inguruabarretatik bat edo beste betetzen ez duten pertsona edo entitateak.

4.2 Pertsona fisikoen kasuan, gainera, eskabidea egiteko unean 18 urte betetik izan beharko ditu baina 65 baino gutxiago; gainera, guraso aginteari esker burujabe izatea adinduna izatearen pareko izango da.

4.3 Pertsona juridikoek, oro har adierazitakoaz gain, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a. Sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan izatea.

Egoitzaren betebeharra beteta egongo da pertsona juridikoaren edo erakundearen gizarte eta zerga helbidea, bai eta gutxienez kapital sozialaren ehuneko 50eko partaidetza duten bazkideen erdia baino gehiagorena ere, Araban dagoenean.

Equino", con referencia de contraído 10.1.10.105.3068/000, del vigente Presupuesto de Gastos de la Diputación Foral de Álava para el ejercicio 2010.

#### DISPOSICIONES DEROGATORIAS

Única.- Quedan derogadas todas las disposiciones de igual o inferior rango que se opongan al presente Decreto Foral y en particular, el artículo 62 del Decreto Foral 47/2004 de 6 de julio, y la parte de los anexos del citado Decreto que hagan referencia a dicho artículo.

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su aprobación, sin perjuicio de su publicación en el BOTHA.

En Vitoria-Gasteiz. 29 de junio de 2010.- Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Diputada Foral de Agricultura, ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ.- Director de Agricultura, EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

#### **Bases reguladoras para la concesión de las ayudas a la adquisición de reproductores de ganado equino de la raza "Caballo de Monte del País Vasco"**

##### Artículo 1.- Objeto:

El presente Decreto tiene por objeto establecer las ayudas para la compra de reproductores de ganado equino de la raza Caballo de Monte del País Vasco destinados a la reproducción y mantenidos en régimen extensivo.

Estas ayudas serán financiadas íntegramente con cargo a los Presupuestos de Diputación Foral de Álava.

##### Artículo 2.- Definiciones:

A efectos de este Decreto Foral serán de aplicación, las definiciones establecidas en la Ley 19/1995, de 4 de julio de Modernización de las explotaciones agrarias; Ley 10/2009, de 20 de octubre para la creación de órganos consultivos del Estado en el ámbito agroalimentario y de determinación de las bases de representación de las organizaciones profesionales agrarias.

##### Artículo 3.- Compatibilidad de las ayudas.

Las ayudas previstas en este Decreto Foral serán incompatibles con cualquier otra ayuda establecida para el mismo objeto por las Administraciones Públicas.

##### Artículo 4.- Beneficiarios/beneficiarias.

4.1.- Con carácter general podrán ser beneficiarias de las ayudas previstas en este Decreto, las personas físicas o Jurídicas inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias de Álava, las Entidades Locales, Parzonerías, Consierras o Comunidades de Sierras que cumplan los siguientes requisitos:

- Tener el domicilio fiscal en Álava.
- Estar al corriente en el pago de la Seguridad Social.
- Estar al corriente en el pago de todo tipo de obligaciones fiscales.

d. No podrán obtener la condición de beneficiario de las subvenciones reguladas en este Decreto las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias establecidas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones

4.2 En el caso de persona física, además, en el momento de la solicitud, deberá tener una edad comprendida entre 18 y 65 años, sin perjuicio de que se pueda equiparar a la mayoría de edad la emancipación.

4.3 En el caso de personas jurídicas, además de lo señalado con carácter general, deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Tener su domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Álava.

A estos efectos se entenderá cumplido este requisito cuando tanto el domicilio fiscal y social de la persona jurídica o entidad como el de al menos el 50 por ciento de los socios o socias que a su vez posean una participación de al menos el 50 por ciento del capital social, esté situado en Álava.

Bazkide guztiek eskakizun hori betetzen ez badute, dirulaguntza gutxitu egingo da eskakizuna betetzen ez duten bazkideen partaidetzaren proportzio berean.

b. Bazkideen partaidetzak edo akzioak izendunak izatea, eta elkartearen xede bakarra, estatutuekin bat etorritz, nekazaritza eta abeltzaintzan jardutea izatea.

c. Beste pertsona juridiko batzuen partaidetza duten pertsona juridikoen kasuan, elkartearen osaketa agertu behar dute osatzen duten pertsona fisiko guztien identifikazioa lortu arte; horrez gain, horiek ustiategi onuradunean duten kapitalaren ehunekoa adierazi behar da.

Izaera juridikorik gabeko sozietateek ezin izango dute horrelako dirulaguntzarik jaso, oinordetzako komunitateak izan ezik, baldin eta komunitate horiek gutxienez sei urtetan banatuko ez direla hitzartu bada. Sozietate zibilak direnean, eskritura publiko bihurtutako agirien bidez osatuta egongo dira.

Dekretu honen ondorioetarako, ondasun edo jaraunspen komunitate baten jabetzako nekazaritza ustiategiak ustiategi elkartzat joko dira.

5. artikulua.- Onuradunen baldintza orokorrak eta betebeharrak.

Eskaria egin duten abeltzaintzako ustiategiak animalien osasunari buruz indarrean dauden arauak bete behar dituzte, bai eta ustiategi bakoitzean dauden abere espezie guztiei dagozkien osasun kanpainak egin ere.

5.2. Laguntza hau bakarka eskatzen duten abeltzaintzako ustiategiak haragitarako gai diren 15 behor, 2 urtetik gorakoak, eduki behar dituzte gutxienez. Behor horiek Abeltzaintzako Erroldan egon beharko dira inskribaturik.

5.3 Toki Erakunde, Partzuergo, mendilerroetako elkarte edo erkidegoen kasuan, inbertsioa egin duten pertsona guztiak Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan inskribatutako ustiategiak dauzkaten abeltzainak izan beharko dira. Ustiategi horiek, guztira, haragitarako gai diren 20 behor, 2 urtetik gorakoak, eduki behar dituzte gutxienez. Behor horiek Abeltzaintzako Erregistroan egon beharko dira inskribaturik.

5.4 Nolanahi ere, diruz lagundutako aberea ugalketarako erabili beharko da. Abereak eginkizun hori dirulaguntza jaso zuen ustiategi berean bete beharko du gutxienez hiru urtez dirulaguntza hori jaso zenetik, edo eskabidea aurkezteko unean agertzen diren ustiategietan, Toki Erakunde, Partzuergo, mendilerroetako elkarte edo erkidegoen kasuan.

6. artikulua.- Berariatzko eskakizunak

Erositako aparteko almazariak, zeinentzat laguntza eskatzen baita, hurrengo baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Infekta edo kutsa dezakeen gaixotasunik ez izatea.
- b) Ugalketarako gai izatea eta funtzio hori betetzeko erabiltzea.

c) "Euskal mendi zaldia" arrazakoa izatea eta haragitarako gaitasuna duten behorrak estaltzeko erabiltzea.

d) Indarrean dauden arauen arabera ezinbestekoak diren osasunari buruzko agiri guztiak izatea eta modu ofizial batez identifikazioa izatea, baita Zaldien Identifikazio Agiria edo agiri baliokideren bat ere.

e) Eskaria egin baino 18 hilabete lehenago gehienez ere, ustiategian sartu izana.

7. artikulua.- Laguntzak forma eta zenbatekoa

7.1.- Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza izango da laguntza. Zenbatekoa, erosketa prezioaren gainean kalkulatu da, ehuneko hauen arabera:

- Gehienez % 50 Toki Erakunde, Partzuergo, mendilerroetako elkarte edo erkidegoen kasuan.

- Gehienez % 35 lehentasunezko abeltzaintzako ustiategiaren titular diren banakako abeltzainen kasuan.

Quando este requisito no se cumpla por la totalidad de los socios y socias, la ayuda a conceder se reducirá en una proporción igual a la participación de los y las que no cumplan este requisito.

b. Que las participaciones o acciones de los socios y las socias sean nominativas y que la sociedad tenga por objeto conforme a los estatutos, el ejercicio de la actividad agraria- ganadera.

c. En el caso de personas jurídicas participadas por otras personas jurídicas deberán desvelar su composición social hasta llegar a la identificación de las personas físicas que las compongan, indicando el porcentaje de cada uno de éstas en capital de la explotación beneficiaria.

No podrán acceder a estas ayudas, sociedades carentes de personalidad jurídica, con excepción de las comunidades hereditarias sobre las que exista pacto de indivisión por un periodo mínimo de seis años. En el caso de Sociedades Civiles deberán estar constituidas mediante documentos elevados a Escritura Pública.

A los efectos de la aplicación del presente Decreto, las explotaciones agrarias que pertenezcan a una comunidad de bienes o hereditaria serán consideradas explotaciones asociativas.

Artículo 5.- Condiciones generales y obligaciones de las personas beneficiarias.

5.1 Las explotaciones ganaderas solicitantes deben cumplir las normas vigentes en materia de sanidad animal, y realizar las campañas de saneamiento correspondientes en todas las especies ganaderas existentes en cada explotación.

5.2. Las explotaciones ganaderas individuales, solicitantes de esta ayuda deberán disponer de un mínimo de 15 yeguas mayores de 2 años de aptitud cárnica, debidamente inscritas en el Registro de Ganadería.

5.3 En el caso de Entidades Locales, Parzonerías, Consierras y Comunidades de Sierras, el 100 por ciento de las personas afectadas por la Inversión deberán ser personas ganaderas cuyas explotaciones estén inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias de Álava y disponer entre todas de un mínimo de 20 yeguas mayores de 2 años de aptitud cárnica, debidamente inscritas en el Registro de Ganadería.

5.4 En todo caso se deberá destinar el animal subvencionado a reproductor, cumpliendo su cometido en la misma explotación en la que percibió la subvención durante al menos tres años desde la percepción de ésta, o en las explotaciones que figuran en el momento de presentar la solicitud cuando se trate Entidades Locales, Parzonerías, Consierras y Comunidades de Sierras.

Artículo 6.- Requisitos específicos

Los reproductores selectos adquiridos para los que se solicita la ayuda deberán reunir los siguientes requisitos:

- a) Estar exentos de enfermedad infectocontagiosa.
- b) Ser aptos para la función de reproductor y ser destinados para cumplir tal función.

- c) Ser de raza "Caballo de Monte del País Vasco" y destinado a la cubrición de yeguas de aptitud cárnica.

- d) Disponer de toda la documentación Sanitaria que exija la normativa en vigor y estar debidamente identificado de forma oficial y en posesión del DIE (Documento de Identificación Equina) o documento equivalente.

- e) Haber sido introducido en la explotación como máximo 18 meses antes de la fecha de solicitud.

Artículo 7.- Forma y Cuantía de las ayudas

7.1.- La ayuda consistirá en subvención a fondo perdido cuyo importe será calculado sobre el precio de compra en los siguientes porcentajes:

- Hasta el 50 por ciento en el caso de Entidades Locales, Parzonerías, Consierras y Comunidades de Sierras.

- Hasta el 35 por ciento en el caso de ganaderos o ganaderas individuales, titulares de explotaciones agrarias prioritarias.

• Gehienez % 25 lehenasunezkoak ez diren abeltzaintzako ustiatgien titular diren banakako abeltzainen kasuan.

Kasu guztietan, laguntza kalkulatzeko gehieneko aurrekontu gisa 2.500,00 euro ezartzen dira almazari bakoitzeko.

7.2 Banakako abeltzaintzako ustiatzietan, 15 behorretik behin gehienez almazari bat lagunduko da diruz.

7.3 Toki Erakunde, Partzuergo, mendilerroetako elkarte edo erki-degoei 20 behorretik behin gehienez almazari baterako emango zaie dirulaguntza.

Bi kasuetan, helburu horretarako azken laguntza ematen denetik hiru urteko epea igaro ondoren emango da dirulaguntza.

Nolanahi ere, aurreko ataletan ezarritako ehunekoak aplikatu ondoren laguntza 100,00 eurotik beherakoa bada, ez da inolako laguntzarik emango.

#### 8. artikulua.- Egiaztatzea eta ikuskatzea.

Laguntzez gozatzeko onuradunei nahiz dirulaguntzaren xede diren almazarietara eskatzen zaizkien baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren egiaztapen zein ikuskaritzak burutuko ditu Nekazaritza Sailak administrazio arloan zein tokian bertan.

#### 9. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

9.1.- Urtero onartuko da kasuan kasuko laguntza deialdia, zeinak jasoko duen eskabideak aurkezteko epea eta laguntzak ebazteko esleitutako kredituak.

9.2.- Laguntzaren eskabidea inprimaki normalizatuan aurkeztuko da ustiatzietara dagoen lekuan dagozkion Nekazaritzako Eskualdeko Bulegoetan. Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren edo IFKren fotokopia, lehenago aurkeztu ez bada.

- Eratze eskritura publikoa, eskatzailea Sozietate Zibila edo ondasun erkidegoa bada eta lehenago aurkeztu ez bada.

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga betebeharrak beteta izatearen ziurtagiria.

Eskatzaileak Nekazaritza Saila eskuordetu dezake zerbitzu egokiei aurreko atalean aipatutako ziurtagiriak eta agiriak eskatzeko.

- Aberearen erosketaren faktura, behar bezala egin eta betetakoa, baita faktura ordaindu izanaren egiaztapena ere.

- Dirulaguntzaren xede den aberearen Zaldien Identifikazio Agiriaren edo agiri baliokidearen kopia konpultsatua.

- Aberearen lekualdaketa buruzko osasun agiriak eta arrazaren egiaztapena.

Banakako abeltzaintzako ustiatzietara denean, gainera, hauek aurkeztu beharko dira:

- Nekazaritzako Ustiatzietan Erregistroan inskribatu izana egiaztatze txartela, lehenago aurkeztu ez bada. Lehenago aurkeztu bada, nahikoa izango da ustiatzietara kodea adieraztea.

Toki Erakundeak, partzuergoak, mendilerroetako elkarte eta erkidegoak direnean:

- Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia, lehenago aurkeztu ez bada.

- Erakundeak almazaria erosteko hartutako erabakia.

- Almazaria erosten duten nekazaritzako ustiatzietan titularren zerrenda eta ustiatzietara horiek non dauden.

- Inbertsioa egin duten ustiatzietan % 50 gutxienez Nekazaritzako Ustiatzietan Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatze txartelak. Lehenago aurkeztu badira, nahikoa izango da ustiatzietara kodea adieraztea.

- Inbertsioa egin duten ustiatzietara zibil badira eta ezaugarri hori Nekazaritzako Ustiatzietan Erroldan ageri ez bada, eskritura publiko bihurtutako agiriaren kopia.

• Hasta el 25 por ciento en el caso de ganaderos o ganaderas individuales titulares de explotaciones agrarias que no tengan la condición de prioritarias.

En todos los casos se establece como presupuesto máximo para calcular la ayuda la cantidad de 2.500,00 euros por reproductor.

7.2 En las explotaciones ganaderas individuales no se subvencionará más de un reproductor por cada 15 yeguas existentes en la explotación.

7.3 A las Entidades locales, Parzonerías, Consierras y Comunidades de Sierras no se subvencionará más de un reproductor por cada 20 yeguas.

En ambos casos la subvención se concederá una vez transcurrido el plazo de tres años desde la última ayuda concedida para este mismo objeto.

En cualquier caso si la ayuda, una vez aplicados los porcentajes establecidos en los apartados anteriores, fueran inferior a 100,00 euros no se concederá ayuda alguna.

#### Artículo 8.- Comprobación e inspección.

El Departamento de Agricultura realizará las comprobaciones e inspecciones, tanto administrativas como de campo, necesarias al objeto de verificar el cumplimiento de las condiciones exigidas a los beneficiarios/beneficiarias para el disfrute de las ayudas y a los reproductores equinos objeto de la subvención.

#### Artículo 9.- Plazo y forma de presentación de solicitudes.

9.1.- Anualmente se aprobará la correspondiente convocatoria de ayudas que incluirá el plazo de presentación de solicitudes y los créditos destinados a la resolución de la misma.

9.2.- La solicitud de ayuda se presentará en impreso normalizado en las Oficinas Comarcales Agrarias correspondientes al lugar donde esté ubicada la explotación y deberá ir acompañada de la siguiente documentación:

- Fotocopia del D.N.I. o CIF, si no ha sido presentado anteriormente.

- Escritura Pública de constitución si el solicitante es Sociedad Civil o Comunidad de Bienes y no ha sido presentada con anterioridad.

- Certificado de hallarse la corriente con las obligaciones de la Seguridad Social y de estar al corriente con las obligaciones fiscales.

El solicitante podrá delegar expresamente en el Departamento de Agricultura para que solicite a los Servicios correspondientes, los certificados y documentos señalados en el apartado anterior.

- Factura de compra del animal debidamente formalizada y cumplimentada así como acreditación de su abono.

- Copia, debidamente compulsada, Documento de Identificación Equina o documento equivalente del animal objeto de subvención.

- Documentación sanitaria del traslado del animal y acreditación de la raza del mismo.

Cuando se trate de una explotación ganadera individual, se deberá aportar además:

- Tarjeta que acredite la inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias si no se ha aportado anteriormente en cuyo caso bastará señalar el código de explotación.

Cuando se trate de Entidades Locales, Parzonerías, Consierras o Comunidades de Sierras:

- Copia del Código de Identificación Fiscal, si no se hubiera entregado anteriormente.

- Acuerdo de la Entidad de la adquisición del reproductor.

- Relación de titulares de explotaciones agrarias afectadas por la adquisición, así como su ubicación.

- Tarjetas que acrediten la inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias de al menos el 50 por ciento de las explotaciones afectadas por la inversión, salvo que se hayan entregado anteriormente en cuyo caso bastará indicar el código de la explotación.

- Copia de Documentos elevados a Escritura Pública, de las explotaciones afectadas por la inversión y sean Sociedades Civiles siempre que este requisito no conste en el Registro de Explotaciones Agrarias.

Pertsona juridikoen kasuan, ondoko agiri hauek ere aurkeztu beharko dira: estatutuen fotokopia, eraketaren eskritura publikoaren kopia, bazkideen izenen zerrenda, kapital sozialaren banaketa eta abeltzainak diren bazkideen ziurtagiriak.

8.3 Eskatzaileek 10 laneguneko epea izango dute –larunbatak kenduta–, agindeia egiten zaienetik aurrera zenbatuta, eskabidea eskatu zaizkien agiriekin osatzeko. Horrenbestez hasierako eskabidea iraungiko da, eta epearen barruan osatu ezean, artxibatu egingo da.

10. artikulua.- Izapideak, ebazpena eta jakinarazpena.

10.a.- Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, espedienteak, Abeltzaintza Zerbitzuak bideratuko ditu, eta balioespeneko kide anitzeko organoak proposatuta, dagokion foru organoak ebartziko ditu indarrean dagoen araudia oinarri hartuta. Modu horretan ebartziz amaituko da administrazio bidea. Ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, indarrean den araudiaren arabera. Dena den, aukerako berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da.

10.b.- Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 42. artikuluan xedatutakoaren ildotik, prozeduraren ebazpena eman eta pertsona eskatzaileari jakinarazteko gehienez sei hilabeteko epea izango da, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igaro eta administrazioak berariaz ebazpenik eman eta jakinaraziko ez balu, eskabidea onartu ez duela esan nahiko luke, horixe xedatzen baitu azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 43.1 artikuluan.

11. artikulua.- Laguntzak balioesteko kide anitzeko organoa eta laguntzak aukeratzeko irizpideak.

11.1 Laguntzen ildo hau balioesteko organoa jarraian adieraziko diren pertsonen edo haiek eskuordetzen dituztenek osatuko dute.

- Abeltzaintza Zerbitzuko burua.
- Laguntza hauez arduratu behar duen Zerbitzuko teknikaria.
- Administrazio Kudeaketa Atalaren burua

11.2.- Foru dekretu honetan ezartzen diren laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Eskatzen diren eskakizunak betetzen dituzten eskatzaileek jasoko dute laguntza, baldin eta urteko aurrekontuetan behar beste diru badago.

Laguntzen zenbatekoa erreserbatutako kredituarena baino handiagoa bada, laguntzarako eskubidea daukaten eskabide guztien artean hainbanatuko da.

12. artikulua.- Ondorioak eta onuradunen betebeharrak.

Foru dekretu honetan ezarritako dirulaguntzen onuradunak Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Araudian ezarrita dagoenari lotuko zaizkio.

Halaber, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste organoek eskatutako informazio oro eman beharko dute.

13. artikulua.- Laguntzak berraztertzea.

Laguntzak emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzen badira, laguntza horiek berraztertu egingo dira kasu guztietan.

14. artikulua.- Itzulketak eta zuzenketak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17-3,n) artikuluan xedatu duenarekin bat, laguntza itzuli beharko da jarraian adieraziko diren ehunekoetan, legezko interesekin handituta, honako kasu hauetan:

% 100, dirulaguntzaren xede den aberea dirulaguntza jaso duen ustategian egon ez bada urte oso batean, bertan sartu denetik.

% 66, dirulaguntzaren xede den aberea ustategian urtebetez soilik egon bada, bertan sartu denetik.

En el caso de persona Jurídica además se adjuntará fotocopia de los Estatutos, Copia de la Escritura Pública de Constitución, relación nominal de socios y de socias, distribución del capital social y documentación acreditativa de los socios y las socias que sean ganaderos.

8.3 Los y las solicitantes dispondrán de un plazo de 10 días hábiles, excluidos los sábados, contado desde la fecha de su requerimiento para completarla con la documentación que le sea requerida, caducando aquella y procediéndose a su archivo, caso de no hacerlo en dicho plazo.

Artículo 10.-Tramitación, Resolución y Notificación.

10.a.- Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, los expedientes, serán instruidos por el Servicio de Ganadería y a propuesta del Organismo colegiado de Valoración, resueltos por el Organismo Foral correspondiente en base a la normativa vigente, cuya resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma procederá la interposición de Recurso Contencioso Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco con arreglo a la Normativa que lo regula sin perjuicio de poder interponer recurso potestativo de reposición.

10.b.-A efectos de lo establecido en el artículo 42 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, el plazo máximo para dictar y notificar la resolución del procedimiento será de 6 meses desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Si transcurrido dicho plazo no se hubiese dictado y notificado resolución expresa, se entenderá que el silencio administrativo es desestimatorio, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 43.1 de la mencionada Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

Artículo 11.- Órgano Colegiados de Valoración y criterios de selección de las ayudas.

11.1 El Órgano de valoración de esta línea de ayudas estarán compuestos por las personas que a continuación se indican o en quien deleguen.

- Jefe o Jefa del Servicio de Ganadería.
- Técnico o técnica del citado Servicio encargado de estas ayudas.
- Jefe o Jefa de Sección de Gestión Administrativa.

11.2.- La concesión de las ayudas previstas en el presente Decreto Foral se tramitarán en régimen de concurrencia, otorgándose a favor de todos de los solicitantes que reúnan los requisitos exigidos y dentro de las disponibilidades presupuestarias anuales.

Caso de que el importe de las ayudas fuera superior al crédito reservado, se prorrateará entre todas las solicitudes que tengan derecho a la ayuda.

Artículo 12.- Efectos y obligaciones de las personas beneficiarias.

Las personas beneficiarias de las ayudas contempladas en el presente Decreto Foral quedarán sometidos a la normativa establecida en la Norma Foral 3/1997 de 7 de febrero, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Alava, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y Reglamento de aplicación aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.

Asimismo, están obligadas a facilitar cuanta información les sea requerida por el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, el Tribunal de Cuentas u otros Organos competentes.

Artículo 13.- Revisión de las ayudas.

En todo caso serán revisadas las ayudas siempre que se alteren las condiciones que se tuvieron en cuenta para su concesión.

Artículo 14.- Reintegro y correcciones.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 17-3,n) de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones, deberá reintegrarse la ayuda en los porcentajes que a continuación se indican incrementados con los intereses legales en los siguientes casos:

100 por ciento si el animal objeto de la subvención no ha permanecido en la explotación afecta por la subvención durante un año completo desde la introducción en la misma.

66 por ciento, si el animal objeto de subvención sólo se ha permanecido en la explotación un año desde su introducción.

% 33, dirulaguntzaren xede den aberea ustiatzean bi urtez soilik egon bada, bertan sartu denetik.

Zenbateko horiek diru sarrera publikotzat joko dira legezko ondorioetarako. Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarrita dauden arrazoiengatik ere bidezkoa izango da jasotako diru kopuruak itzultzea, baita berandutze interesak ordaintzea ere, hain zuzen ere dirulaguntza ordaindu denetik dirua itzuli beharra ezarri arte sortutakoak.

Hori Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez xedatuko da. Baina foru agindua eman aurretik ikuskapen edo kontrol txostena aztertuko da, itzultze edo murrizte proposamena egingo da eta onuradunari entzungo zaio.

Jasotako dirulaguntza guztia edo zati bat itzuli edo dirulaguntza edo ordainketak murriztu behar izateak ez du zerikusirik izango otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauan eta indarreko araudian xedatutako arau hausteengatik abiarazi daitekeen zigor prozesuarekin.

## NEKAZARITZA SAILA

4800

### **35/2010 FORU DEKRETUA, uztailaren 6ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez nekazaritzako aseguruak kontratatze laguntzak emateko oinarriak eta laguntza horien 2010eko ekitaldiko deialdia onartu dira.**

Uztailaren 6ko 47/2004 Foru Dekretuaren bidez Arabako Nekazaritza Sektorerako Laguntzen Plana onartu zen 2000-2006 aldirako. Plan horren laguntza ildoan artean nekazaritzako aseguruak kontratatze laguntzak daude. Foru dekretu hori beste foru dekretu hauen bidez aldatu zen: 65/2004, azaroaren 16koa; 28/2005, apirilaren 5koa; 51/2005, abuztuaren 2koa; 53/2006, abuztuaren 3koa; 63/2006, irailaren 26koa; 29/2007, martxoaren 13koa; 41/2007, maiatzaren 2koa.

Martxoaren 24ko 29/2009 Foru Dekretuaren eta urriaren 27ko 71/2009 Foru Dekretuaren bidez aldatutako urriaren 28ko 92/2008 Foru Dekretuak 47/2004 Foru Dekretuaren zati bat indargabetu zuen, baina nekazaritzako aseguruak kontratatze laguntzen erregulazioak indarrean jarraitu zuen.

Lehenago aipatu diren oinarriak eguneratu eta aldatu behar dira gaur egun nekazaritzarako onuragarriak diren aseguruak sustatzeko eta gainera Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta lege hori garatu duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Araudian xedatutakora moldatu behar dira. Hori guztia kontuan hartuta, nekazaritzako aseguruak kontratatze laguntzak arautuko dituzten oinarriak ezarri behar dira dekretu baten bitartez.

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuak dirulaguntzen onuradunak zerga betebeharrak betetzen dituztela frogatzeko prozedura ezarri zuen eta betebeharraren salbuespenen araubidea finkatu zuen. Diputatuen Kontseiluaren urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak aurreko foru dekretua aldatu zuen: 800,00 eurotik beherako dirulaguntzen onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela frogatu beharretik salbuetsi zituen eta 3.000,00 eurotik beherako dirulaguntzen onuradunak Gizarte Segurantzarekiko betebeharretatik salbuetsi zituen.

Aginduzko txostenak aztertu dira eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

33 por ciento, si el animal objeto de subvención sólo ha permanecido 2 años ese la introducción.

Dichas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes. También procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, por las causas establecidas en el artículo 37 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

Se determinará por Orden Foral de la Diputada de Agricultura, a la vista del informe de inspección o control, la propuesta de reintegro o minoración y audiencia del beneficiario.

El procedimiento de reintegro total o parcial o la minoración de la ayuda o de los pagos de ésta será independiente del procedimiento sancionador que pueda incoarse por la comisión de las infracciones previstas en la Norma Foral 3/1997 de 7 de febrero y por la normativa vigente.

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

4800

### **DECRETO FORAL 35/2010, del Consejo de Diputados de 6 de julio, que aprueba las bases de concesión de las ayudas para la contratación de Seguros Agrarios y la convocatoria de éstas para el año 2010.**

Por Decreto Foral 47/2004 de 6 de julio, modificado por los Decretos Forales: 65/2004 de 16 de noviembre, 28/2005 de 5 de abril, 51/2005 de 2 de agosto, 53/2006 de 3 de agosto, 63/2006 de 26 de septiembre, 29/2007 de 13 de marzo y 41/2007 de 2 de mayo, se aprobó el Plan de Ayudas al Sector Agrario Alavés para el período 2000-2006, entre cuyas líneas de ayudas se encuentran las destinadas a la contratación de seguros agrarios.

El Decreto Foral 92/2008 de 28 de octubre, por el que se aprueba el nuevo Plan de Ayudas al Sector Agrario Alavés para el período 2007-2013, modificado por Decretos Forales 29/2009 de 24 de marzo, 71/2009 de 27 de octubre, deroga parcialmente el Decreto Foral 47/2004, quedando vigente sin embargo la regulación de las ayudas a la contratación de seguros agrarios.

Considerando que, por un lado es necesario actualizar y modificar las citadas bases para fomentar los seguros que sean de interés actualmente para el sector agrario y que por otro hay que adaptarlas a los dispuesto en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el Reglamento que desarrolla la citada ley aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio, procede establecer en un nuevo Decreto las bases reguladoras de las ayudas a la contratación de Seguros Agrarios.

Considerando que el Decreto Foral 58/2004 del Consejo de Diputados de 5 de octubre, que modifica el Decreto Foral del Consejo de Diputados 18/1997, de 11 de febrero, sobre procedimiento de acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias por los beneficiarios de subvenciones y el régimen de excepciones a la obligación de tal acreditación, exime la obligación de acreditar el cumplimiento de obligaciones fiscales y con la Seguridad Social entre otros, a los beneficiarios de subvenciones de cuantía inferior a 800,00 euros, así como del cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social a los beneficiarios de subvenciones cuyo importe sea inferior a 3.000,00 euros.

Vistos los informes preceptivos, a propuesta de la Diputada Foral de Agricultura y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,